

LABURRAN

Durangoko gazte batek Ertzaintzaren aurka salaketa jarri du legez kanpoko atxiloketa eta mehatxuengatik

Joseba Gorka Lupiañez gazte durangarrak «legez kanpoko atxiloketa eta mehatxuengatik» zenbait ertzainen aurkako salaketa jarri duela jakinarazi zuen atzo Askatasuna erakundeak. Lupiañezen arabera, joan den abenduaren 12an Durangoko kale batean zegoela zenbait ertzainek atxilotu zuten, eta eskuburdinak ipinita Mitaño mendira eraman zuten furgonetan. Han, haiei laguntza eman ezean, *Bizkaia komandoko* kidea zela esanez atxilotuko zutela esan bide zioten.

Nafarroako IUK eta CDNk Begoña Erraztiren etxebizitzaren aurkako eraso gaitzetsi dute

Nafarroako IUK eta CDNk herenegun gauean Iruñean Begoña Errazti EAko lehendakariaren etxebizitzaren atariaren aurka eginiko eraso gaitzetsi zuten atzo. Bi alderdiek elkartasuna adierazi zioten Erraztiri, eta «terrorismoaren aurkako borrokan alderdi guztiek batera lan egiteko» deia egin zuten.

Cardenalek «laguntzeko konpromisoa» agertu die Hego Euskal Herriko fiskalei

Jesus Cardenal Espainiako fiskal buruak «erabateko elkartasuna» azaldu zien, atzo, EAEko eta Nafarroako fiskalei, haiekin Bilboko Justizia Jauregian egin bileran. Bilkuraren ostean, fiskalen segurtasuna bermatzeko, «bere esku dagoen oro» egingo duela esan zuen Cardenalek, eta animo hitzak izan zituen haientzat. Era berean, «hunkiturik» agertu zen fiskal burua, «ez nuelako uste hain egoera zailean zeudenik». Hala, bilkurak fiskalen nahiak eta iritziak jasotzeko baliotzat jo du Cardenalek.

Jose Maria Gonzalez Zorrilla izendatu dute Europako Mugimenduko Euskal Kontseiluko buru

Europako Mugimenduko Euskal Kontseiluak V. Biltzar Nagusia egin zuen herenegun Gasteizen. Bertan, zuzendaritza berria aukeratu zuten. Hala, Jose Maria Gonzalez Zorrilla (EAJ) izango da lehendakari berria. Lehendakariordeak, aldiz, Jose Maria Etxeberria (EAJ), Iñaki Oyarzabal (PP), Angel Garcia Ronda (PSE-EE), Begoña Lasagabaster (EA), Isabel Lopez Aulestia (EB) eta Carlos Vaquero (UA) izango dira.

Ertzaintza «errepresio bidean jauzi kualitatiboa ematen» ari dela salatu du Batasunak

Ertzaintza «errepresio bidean jauzi kualitatiboa ematen» ari dela salatu zuen atzo Batasunak prentsa ohar baten bidez. Batasunaren aburuz, «Estatuek eta Ertzaintza zuzentzen duten alderdiek errepresio bidearen areagotzearen aldeko apustu garbia egin dute». Goierri eta Tolosaldeko eremuak aipatu zituen bereziki Batasunak.

‘URRALBURU AUZIA’. Espetxe Erakundeek ezeztatu zuten eskaera onartu du Logroñoko presondegiko epaileak

Urralburu eta Aragon hirugarren graduan daude ostiraletik

Haien emazteak ere tratu bera jasotzeko esperoan daude Iruñeko kartzelan

Kristina Berasain | IRUÑEA

Nafarroako presidente ohi Gabriel Urralburu eta bere gobernuko Garraio Publikoko sailburu ohi Antonio Aragon hirugarren graduan daude, Logroñoko Presondegi Zaingoren epaileak joan den ostiralean emandako ebazpenaren ostean. Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendaritzak ezezkoa eman zion irailean Urralburuk eta Aragonek aurkeztu eskakizunari, baina, helegitea aurkeztu ostean, Logroñoko Presondegiko epaileak hirugarren gradua eman zien joan den ostiralean.

Jose Manuel Martinez Logroñoko kartzelaren zuzendariaren hitzetan, erabaki hau hartzea ez da «erraza» izan, duen «oihartzun soziala dela eta»; baina bertze aukerarik ez zutela adierazi zuen, «baldintza guztiak betetzen zitzutelako». Urralburuk eta Aragonek zigorraren bi herenak beteak dituzte, eta lan kontratu bana aurkeztu dute. Beraz, hemendik aitzina gauze baina ez dute joan behar kartzelara, eta asteburuetan aske daude. Halaber, urtean 48 eguneko baimena izanen dute.

Gabriel Urralburuk eta Anto-

nio Aragonek 444 egun eman dute orotara kartzelan, funtzionario-eroskeria eta zenbait enpresa eraikitzaileen dirusariak jasotzeagatik zigortuak izan ostean. Ustez 5.000 milioi pezeta inguru jaso zituzten.

Martxoaren 28tik Logroñon

Urte honetako martxoaren 28an sartu ziren Urralburu eta Aragon Logroñoko kartzelan, Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren ostean. Gorenak Nafarroako Auzitegiak aurretik ezarritako zigorrak murriztu zituen: 11 urtetik 4 urtera Urralbururi, eta 7 urte eta bi hilabetetik 3 urte eta 8 hilabetera Aragoni.



MIKEL SAIZ

Gabriel Urralburu, martxoaren 28an, kaleko jantzitako bi polizierekin etxetik irteten, espetxera bidean.

Aurretik ere kartzelan izan ziren: 31 egunez 1995ean eta 151 egunez 1996an.

Bestalde, Urralburu eta Aragonen emazte Olivia Balda eta Ana Isabel Romeok —kolaboratu izana egotzi zieten— hirugarren gradua eskatu dute Iruñeko kartzelan. Ustez, urtea amaitu baino lehen emanen diete hirugarren gradua bie.

Urralburu auzian auzipetuta dauden bertze bi erruztatuak: Luis Roldan Guardia Zibilaren zuzendari ohia, eta Jorge Esparza testaferra kartzelan daude oraindik.

Batasunaren gaitzespena

Batasunak gogor gaitzetsi du Urralburu eta Aragoni hirugarren gradua eman izana, atzo

zabaldutako prentsa oharraren bidez. «Iraina da goitik behera; izan ere, oraindik ez dakigu non dauden nafar guztien patriketatik lapurtu zituzten 1.000 milioi pezetak». Halaber, justizia batzuentzat eta besteentzat berdina ez izatea salatu zuen: «Bote-rean daudenen ustelkeriak erabateko zigorgabetasuna duela dirudi».

Gipuzkoako idatzizko komunikabide batek zuzentzaileak behar ditu:

Baloratuko da:

- Esperientzia izatea testuak zuzentzen.
- Euskal Filologiako edo antzeko ikasketak eginak izatea.

Interesdunek, kartazalean lanpostuari dagokion erreferentzi zenbakia zehaztuz, curriculuma, argazkia eta harremanetarako telefonoa bidali abenduaren 27a baino lehenago Donostiako 1887 posta kutxara. Erreferentzia: Zuzentzailea..

Oharra: Aukeratutakoei soilik erantzungo diegu.

Bizkaierazko idatzizko komunikabide batek zuzentzaile-trebatzaile bat behar du, Bilbon lan egiteko.

Ezinbestekoa da:

- Bizkaieraz ondo jakitea.

Baloratuko da:

- Euskal Filologiako ikasketak eginak izatea.
- Esperientzia izatea testuak zuzentzen.

Interesa izanez gero, bidali curriculuma 6412 posta kutxara, abenduaren 27a baino lehen. Erreferentzia: *Trebatzailea*.